

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko martxoaren 31

Egunkaria

Gehigarri honetan



Zugarramurdi • Asteburuan Eskual Titiriteroen III. Topaketa egingen dute, Mikel eta Estefaren omenez
Jose Luis Mendoza • «Euskaldunen Arartekoa sortu nahi dugu»

Xake Txapelketa



• KRISTINA BERIAIN

ikastolan

Egunotan Nazioarteko Xake Txapelketa egiten ari dira Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolan. Bertako haurrak sei urterekin hasten dira hamasei piezen mugimenduak ikasten. Bisitan etorri zaien Anatoli Karpov ez dute ezagutzen. Berdin dio. Xakea jolas modura hartzen dute, xakea hartzeko beste modurik ez baitago. Eta, gainera, euren heziketan laguntzen diela diote helduek. Baina beraiei bost, 64 laukitxoetan gustura mugitzen baitira.

Erronkari • Elurra eta haur eskiatzaileak urtu dira

Amaitu da 2000. urteko ipar eskiko eskolako kanpaina

11-14 urte bitarteko 4.500 bat haurrek parte hartu dute ipar eskiko XVI. kanpainan. Urtarril eta martxoa bitartean egiten den Aste Zuria izeneko ekimena Izabako eta Otsagiko udalek sortu zuten duela hamasei urte. Eta orain Erronkari zein Zaraitzuko ibarretan negua iristen den naturaltasunez umeak hartzen dituzte.

NEGUKO ELURREN URtzearekin batera haurren barre algarak Ezka ibaitik behera joan dira. Dagoeneko 2000. urteko ipar eskiko denboraldia amaitu da. Urtarrilaren 9tik, 300 bat haur izan dira aste oro, guztira 4.500 bat, Nafarroako bailara guztietakoak, ikastetxe publiko zein pribatuak, euskaldunak eta erdaldunak, Erriberakoak eta Sakanaldekoak, astebetean elkarrekin bizitzen. Horixe baita Aste Zuri honen xedeetarikoa: "Nafarroako herri txiki batean natura errespetatuz bizikidetzaz sustatzea". Helburua nagusia, ordea, ibar hauen berpiztea da. Izan ere, aurtengo kanpainak 110 milioi pezetako irabaziak utzi ditu. Lan talde handi batean artean banatzeko, dena den: egonaldiak jabeak, monitoreak, garraioak eta bestelakoak. Baina, horretaz gain, diru sarrera politak elarri dizkie ekinaldiak herritarrei: okindegiei, harategiei, litxarrerria dendei eta bestelako zerbitzuei.

Aste Zuriak dirua ekarri du, eta herri horietako gazteei bertan lan egiteko aukera eman die. Alde batetik, monitore lanetan hogeita bost lagun aritzen dira aste oro,



11-14 urte bitarteko 4.500 bat haurrek hartu dute parte amaitu berri den Ipar Eskiko XVI. kanpainan.

● EGUNKARIA

Nafarroako ume guztiei eskiatzen irakasten edota jarduera osagarrietako monitore. Beste aldetik, egonlekuetan zerbitzuak eskaintzen dituztenak daude.

Landa etxeetan, berriz, emakumezko edadetuek dute ardura nagusia. Haiei ere, laguntza ekonomikoa emate-

az gain, negu gorriari aurre egiteko beste modu bat dakarkie lanean aritzeak.

Eguzkia eta elurra

Amaitu berria den kanpainaren balorazioak egiteko ordua heldu delarik, Erronkariko ibarreko egonaldiaren ordezkari Jesus Mari Barazek aurtengoaren arrakasta bi faktorek eragin dutela azpimarratu du: elurra eta eguzkia.

«Oso eguraldi aproposa izan dugu aurtengoan, gainera, Nafarroako Gobernuak Ingarugiro Sailak Larrako natur erreserban eskiatzeko baime-na eman du. Horrek urtarilla eta martxoa bitarteko elurra

ziurtatu du eta astero eskiatzeko aukera izan dute haurrek. Eguraldi txarrak soilik oztopatu du zertxobait, baina inolaz ere ez elur faltak. Oso negu eguzkitsua izan dugunez, hiruzpalau egunetan bakarrik geratu gara eskiatzera joan gabe».

Horrelakoetarako badituzte jarduera osagarriak antolatutik, hala nola, mendi irteerak, jokoak, bisitaldiak eta abar. Astebeteko abentura da, beraz, ikasle hauek herri txiki-txiki bizi dutena. Goizez, eskiatzen, eta arratsaldean, jarduera osagarrietan. Hauen artean arrakastatsuen ostegunero ilunabarrean Erronkariko frontoian antolatzen den dantzaldia da. Bertan Erronkariko herrietan dauden ikasle guztiak monitorekin elkartzeko eta izugarritzko parrandarekin esaten diote agur astebeteko egonaldiari.

Hau adierazi du Jesus Mari Barazek horren harira: «Azken batean, familia baten moduko taldea bilakatzen gara. Astebete ematen dugu elkarrekin bizitzeko, eta oso giro onean egoten garenez, konfiantza sortzen da. Harreman onak egiten ditugu. Maiz amodio istorioak sortu dira gaztetxoaren artean. Noski 11-14 urte bitartekoek bizi ditza-keten maitasun horiek... baina badira monitorekin maitemindu diren neska gaztetxoak; baita irakasleak ere...».

Duela hamasei urte hasi zen kanpaina honetan, Erronkari zein Zaraitzuko landa etxeak, Asolaze eta Osate kanpinak eta Oxanea aterpea ikasle hauen ikasgela bilakatzen dira. Jostaldia, berriz, Belaguan izaten dute. Kanpaina bukatuta, hurrengo urteko elurra heldu diren bitartean atsedendia ederra hartuko dute Erronkari ibarreko karriek, baita monitore, ostalari eta irakasleak ere.

→ Idoia Marcellan

muga enea

MIKEL REPARAZ



Goizero ezkututzen zen sukaldeko mahai azpian, eskolara abiatzeko ordua iristen zenero. Goizero. Amak besotik heldu ohi zuen, eta ezkaratzen barrena, arrastaka, kaleraino eramaten zuen, eta autoan sartu, preso arriskutsu bat balitz bezala, besoak bizkarrean gurutzaturik. Eta berak negar egiten zuen, zotinka, mukia sudurpean behera, sofrikario batean. Kotxea eskola atarian gelditu eta amak, periodiko banatzaileen moduan, semea espaloi gainera jaurtitzen zuen arte.

Orduan, birrikak airez bete eta motxilaria fierki eutsirik, korridorean barrena azaltzen zen marraskilo harroka, malko gatzia mihiaz xurgatuz, ikasgelako atarian gelditu arte. «Aurrera», pentsatzen zuen bere baitan, eta klaseko atea bultzatzen zuen. Pro-

fesore serioaren trazak hartzen zituen momentu horretan. Egunko ikasgaia arbel gaineaz azaldu bitartean, ordea, barregarri ikusten zuen bere burua.

Gurasoekin bizitzeko zaharregia zela pentsatzen zuen; are, berrogei urterekin lanera amaren kotxean etortzeko ohitura hura alde batera utzi beharko lukeela egunen batean. Irakasle iragarria zela burutzen zitzaien. Ordea, serio begitzen zituen ikasleak, eta ezin zen ukatu eskola hartako irakaslerik errespetatuena zenik. Beldurgarria. Alta, eskolako irakaslerik barregarria zela zetorkion gogora, eta kontrola galtzeaz izaten zen batzuetan, zotinarekin mugan. Halakoetan, isilik egoteko agintzen zien ikasleei, eta korridorerara ateratzen zen. Korridoreko bakardadean, masailetik behera sentitzen zuen le-

henbiziko malkoa. Baina zenbait kasutan malko hura zotin bilakatzen zen, eta zotina, marraska, lantu gordin. Orduan korridorean barrena lasterka joaten zen, mundutik urrutituta, eta komunean ezkututzen zen.

Gizon negargarria zela iduritzen zitzaien, eta horregatik egiten zuela negar lantokiko komunean, etxean, amaren kotxe barruan, taberna jendetsu baten abarrotsean eta maindirean azpian. Lasaitua hartzen baitzuen negar egitearekin batera. Terapia bezala erabiltzen zuela esaten zion bere buruari. «Barregarri bai akaso, baina ez negarti». Ordea, masailetik malkoak musuzapiatzeko lehorte bitartean klasea itzultzeko tenorea zela erabaki zuenean egin zuen kontu: benetako negartiak ez baitu inoiz jendakarean negar egiten.

Zugarramurdi • Eskual Titiriteroen III. Topaketa



urda
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

San Joxe Zuhaitza

Errealitate anitz eta puntualaren adierazle garbia San Joxe Zuhaitza dugu. Eta zientzia eta mistikaren ordezkari zehatz honen atzetik gabiltzanok San Joxe Zuhaitzaren Maixuen logia-n biltzen gara. Zuhaitz honen pean ez ziren leinuko aiton-amonak biltzen, arbola ez da santua, eta ez zuten abioi naziek bonbardatu. Ez du inongo istoriarik. Duen berexitasun bakarra hostoak San Joxe egunerako, aldameneko eta mota bereko zuhaitzak baino lehena-go, ateratzen dituela da. Takoneran dago (noski). Zehazki «El Bosquecillo» deitzen zaion Hiru Erregeen Hotelaren atzealdeko Takonerako alde horretan. Hemen aipatu nahi dut orain dela gutxi jakin genuela lursail hori Amona baten herentziaz jaso zuela Iruñeko Udalak aspaldian. Amonak, hil aurretik, jarri zuen baldintza bakarra parke bezala erabiltzearena izan zen. Udalak bere aldetik Hotel haundi-maundia eraikitzeo baimena eman zuen (ole!). Hala entzun dugu. Maixuok ez daki-gu zenbateraino den zehatza. Geroztik Hoteleko logeletan gauza arraroak gertatzen direla ere entzun dugu, eta sotoetara jaisterakoan bertako langileek binaka joateko ohitura dutela betidanik, badaezpada ere. Enfin, harira. San Joxe Zuhaitza. Gezurra ematen badu ere, bere nabardura arraroa azaldu nahian hipotesi bat baino gehiago bota izan dira. Batzuek esaten dute sub-mikro-klima baten eraginaren pean dagoela. Beste batzuek uste dute putzu beltz baten gainean paratuta dagoela. Hipotesi hauek eta beste batzuk pasa den urtean Iruñean egin genuen San Joxe Zuhaitzaren XXII. Kongresuan azaldu ziren, non eta Hiru Erregeen Hotelean egindako bilertan. Hitzaldien tarteetan binaka jaitsi ginen sotoetara, gure tradizio zaharrak agintzen duen moduan. Azken solairuko terratzatik gure Zuhaitz Hostoduna behatu genuen bere anaien adar beltzez inguratutik. Hoteleko komun guztietan katetik tiratu genuen balizko putzu beltza aberasteko intentzioarekin. Eta kongresua ixteko patxaran batzuk hartzen ari ginenean gauza izugarria gertatu zen! Magno botila bat lebitatzen hasi eta paretaren kontra zartatu zen! Harriturik, kamareroarengana bueltatu eta bere hitzak entzun genituen: «Lasai, ez da ezer, hau hemen gauza arrunta da. Amonarenak esaten dioguguk». Gure aldetik Kongresuari eginiko ekarpenik haundientzat jo genuen. ●

Mikel eta Estefa zugarramurdiarrek ekarri zuten herrira txotxongiloen kultura. Kisulabe Elkarteko bi kide horiek duela lau eta bi urte zendu ziren, hurrenez hurren, baina herrian euren ondarea gelditu zen. Hori dela eta, herritarrek bi urtean behin Eskual Titiriteroen Topaketa antolatzen dute haien omenez.



'Eskual Titiriteroen II. Topaketa'-ko argazkia, 1998. urtean.
● JOXE LACALLE

Hirugarren topaketa da aurtengoa. Euskal Herrian beste topaketarik badago, baina hau da euskal taldeak bakarrik biltzen dituen bakarra. Kisulabe Elkartek antolatzen du topaketa, inolako diru-laguntzarik gabe. Hori dela eta, talde guztiak ezer kobratu gabe etortzen dira Zugarramurdira. Helena Jurio Kisulabe Elkarteko kideak esan digunez, «denak prest egoten dira urtero etortzeko, guk lo egiteko lekua eta jatekoa bakarrik ematen diegu, ez baitaukagu dirurik emanaldiak ordaintzeko. Eskertzekoa da taldeek duten borondatea».

Egitarau zabala
Larunbatean, 16:30etan, hasiko dira antzezlanak, Behi Bis taldeak estreinatuko duen *Petral Petral* haurrentzako lanarekin. 17:30etan, plazan, Corrado Masaccik *Marionetas en Movimiento* aurkeztuko du. El Tenderete taldeak *Menudencias* lana eskainiko du, plazan horrek ere, arratsaldeko seietan. Zazpitan, herriko eskolan, *Erreka-mari* itzalen antzerkia eskainiko du Pagopie taldeak. Ondotik, zortzietan, Taun Taun taldea Akelarrean ariko da, Txio Txioa haurrentzako antzezlanarekin. Bukatzeko, 22:00etan, Goloka taldeare-

kin kale antzerkia izanen da. Antolatzailleek, halaber, larunbat gauerako kontzertua prestatu dute pilotalekuan. Ozel, Joxe Ripiau eta Eztanda taldeak entzuteko parada izanen da, mila pezeta ordainduta (40 libera). Igande goizean, Taupada taldeak haurrentzako *Argitxo iratxoaren abenturak* emandaldia aurkeztuko du eskolan, 11:30etan. Hamabietan, aparkalekuan, Kukubiltxoren txanda iritsiko da, Txirikiz antzezlan berriarekin. 13:00etan, kale antzerkia izanen da Kukumarekin. Ondotik aperitifia izanen da, trikitilarien soinuarekin. 14:30etan bazkaria izanen da herriko pilotalekuan, 2.500 pezeta ordainduta (100 libera). Antzezlanekin bukatzeko, arratsaldeko bostetan, pilotalekuan, Bihar taldeak *Kli Kla birtzikla* lana eskainiko du. Eta topaketa besta giroarekin amaitzeko, Joseba Tapiak *Quebec. Hamalau kantu independentziarako* kantaldia emanen du, Akelarrean.

→ Rakel Goñi

herri aldizkariak Miren Iriarte

Mairu Antzerki Tailerraren Trizikloa

Lesakako Mairu Antzerki Tailerraren berri ematen du **Ttipi-ttapa** aldizkariak bere azken zenbakian, talde horretako kideei Aitor Arozena kazetariak egindako elkarrizketaren bitartez. Taldekideek Fernando Arrabalen Trizikloa obra prestatu dute, eta Lesakan estreinatu dute berriki. Elkarrizketa horretan, ondokoa azaltzen dute Mairu tailerreko lagunek: «Ideia Bortzirietako Euskara Mako-munidadearena izan zen, Lesakan gazteak mugiarazteko. Hiru hilabetez tailerra egitea zen asmoa. Hasieran hoge bat gazte biltzen ginen. Gero,

jendea uzten joan zen, baina gelditu ginenoi labur egin zitzaizkigun hiru hilabete horiek. Beraz, tailerra luza-tzea proposatu eta onartu ziguten. Hasieran gorputz espresioa eta horrelakoak egiten genituen baina antzeppen bat ere egiten ahal genuela pentsatu genuen».

«Hasieran geronek hartu genuen euskaratze lana, baina nahi bezain ongi ez zegoela ikusi genuen. Gero, euskaltegiko Beñardo Goietzek egin du antzeztuko dugun euskarazko bertsioa. Efektuak, soinuak eta musika sartzen joan gara entsaioetan.

Obra, batzuei tristeia iruditzen zaie baina gure ustez umoretsua da. Umore beltza edo absurdoa du, baina neurri berean, kritika soziala ere badu. Hasieran ez genuen drama bat edo zerbait serioegia egin nahi eta horregatik komedia aukeratu genuen».

«Uste dugu batez ere ongi pasatzera joaten garela tailerrera, bertezetaz eta geure buruaz irri egitea osasungarria dela. Zerbait berria probatzea interesgarria da eta lotsa kentzeko ere hagitz baliagarria da. Lagunarte polita egiten da azkenean».

Xakean jolasean

Egunotan Nazioarteko X. Xake Txapelketa egiten ari dira Paz de Ziganda ikastolan

Paz de Zigandako haurrak sei urterekin hasten dira hamasei piezen mugimenduak ikasten. Bisitan etorri zaien Anatoli Karpov ez dute ezagutzen. Berdin dio. Xakea jolasa balitz bezala hartzen dute, xakea hartzeko beste modurik ez baitago. Eta, gainera, euren heziketan laguntzen diela diote helduek. Baina haiei bost axola zaie, 64 laukitxoetan gustura mugitzen baitira.



Sei eta zortzi urteko haurren xake eskolan hiru neska besterik ez daude. Irudiko neska betaurrekodunak eman du horren arrazoiak: «Mutirik hobeak dira». Paz de Zigandan, batetik, hamabost egunean behin ikasle guziek ordubeteko xake tailerra dute. Bestetik, eskolaz kanpoko jardueretan ere xakea eskaintzen dute, eta horietara nahi duena joaten da.

KRISTINA BERRIAIN

LARUNBATEAN, HAMARRETAN JANTO-KIAN egon behar duzu, esan amari. Alvaro Ablanedo Paz de Ziganda ikastolako xake irakaslea da, eta txapelketan parte hartuko duten sei eta zortzi urte bitarteko en izenak apuntatzen ari da paper zati batean: Mikel, Aritz, Beñat... Gelan hogeit bat haur daude builaka. Zarata hagitz handia da. Halaxe behar du tartean hogeit eztarri daudenez. Xakean ari dira, baina horrek ez du erran nahi geldirik eta isilik egon behar dutenik. Mahai batetik bestera ibiltzen dira. «Ez dakizu galtzen!», oihukatu du batek. «Pazientzia izan behar da», erran du Alvaro irakasleak.

Taulak plastikozkoak dira. Baita fitxak ere. Gogorrak behar dute izan ikasleen zartadei eusteko. Taldean hiru neska besterik ez dago. Alvaro badu hori azaltzeko teoria: «Honetan ere matxismoa nabari da. Mutilek bortizkeria bera erabiltzen dute futbolean eta xakean. Eta ez zaie gustatzen neska baten kontra galtzea». Baina lasai egon daitezke mutilak, zazpi urteko neskato batek dioenez, «mutilak hobeak direlako».

Xakea ikasgai moduan

Alvaroren irudikoz, sei urte edade ona da xakean ikasteko. «Izan ere, xakea jokoa da, ezin aproposagoa haur batentzat. Hiruhileko bat kostatzen zaie arauak ikastea. Partidak amaitzen ikastea kostatzen zaie gehien». Lau urteko jokalaria ere baduela aitortu du Alvaro, harrotasunez.

Paz de Ziganda ikastolan oso xake talde ona dago, Alvaro irakaslearen aburuz. «Euskadi zein Nafarroako jolasetan urte askotan irabazi dugu. Eta ikasle ohiak ditugu Nafarroako txapelketa nagusian

EH-SESB gogoanarri hura

«Niretzat, lehen ekitaldia izan zen politena», erran du Alvaro Ablanedok. Paz de Ziganda Xake Txapelketaren antolatzaileak. Iruña Park hotelean jokatu zen 1991ko lehen ekitaldi hartan Euskal Herriko eta Sobietar Errepublikako Sozialisten Batasuneko (SESB) selekzioak izan ziren aurrez aurre. «Ez zen selezio nagusia, noski», azaldu du Alvaro. «Hogeit urtetik azpikoak ziren, baina aise irabazi zuten, 7-18».

Paz de Ziganda txapelketaren hamargarren ekitaldia Jose

Luis Gororen omenean egingen dute, ikastolako zuzendaria izanaren omenean. «Berak esan zidan egin behar genuela txapelketa bat, eskola artekoa», gogoratu du Alvaro. «Eta bururatu zitzaidan zerbait gehiago egitea, selekzioetako zerbait. SESB desagertzeaz zegoen eta zaila izan zela pentsatu genuen. Euskal Herriko Xake Federazioaren laguna nuen, eta bion artean lortu genuen txapelketa hura antolatzea. Izugarritzko txapelketa polita zen, benetan».

dio han zebilen heldu batek. «Orduan Karpov da lehena eta Karpov bigarrena?», haurrak. «Baietz uste dut», helduak. Eta zera hasi da errepikatzen ondoan zegoen beste haur bat: «Karpov hobe da Karpov baino, partida bat irabazi ziolako». Orduan, beste batek erran du: «Ni Karpov naiz». Eta, noski, ondokoak: «Eta ni Karpov».

Xake txapelketari nolabait bultzada emateko, antolatzaileek Anatoli Karpov jokalaria ospetsua ekarri dute Atarrabiara. Zera esplikatu du Alvaro horren harira: «Hamargarren edizioa egiteko zerbait berezia egin behar zela uste genuen. Hasieran pentsatu genuen eskolarteko txapelketa indartzea Estatuko talderik hoberenak ekarrit. Baina gero Karpov ekartzea buru-

Anatoli Karpov ikastolan

«Karpov da hobereena, betiko», erran du haur batek txapelketa iragartzen duen kartelean Karpoven irudia ikusi duenean. «Baina Karpovek irabazi egin zion», erantzun

Javier Zaratiegi

Nafarroako Xake Federazioko Lehendakaria

«Haurrak hezteko bide ona da xakea, eta ongi legoke aukerako irakasgai bezala»

■ Zein egoeratan dago xakea Nafarroan?

Nahiko ongi dagoela erran daiteke. 575 bat lizentzia ditugu; kopuru hori handituz doa, eta etorkizuneko xake jokalaria gazteak urrutira joanen direla dirudi. Hemendik urte batzuetara nazioarteko maisuen arauen bat lortuko dugu. Hori espero dugu behintzat. Miguel Navarro jokalaria hori lortuko duela dirudi.

■ Nafarroan nazioarteko bi txapelketa daude, Oberenakoa eta Paz de Zigandakoa. Zer-nolako eragina dute xakearen egoerari?

Etortzen diren jokalaria entzutsuek, nazioarteko maisuek zein maisu nagusiek, txapelketak eta bertako xakea goratzen laguntzen dute. Xakea profesionalki egiten dute, maila altua dute, eta hedabideak erakartzen dituzte, aldizkari espezializatuak zein bertako egunkari, irratia eta telebistak. Zaleak ere, maisuen arrimora, etortzen dira txapelketa ikustera edota bertan parte hartzera. Izan ere, txapelketa nagusitik aparte, beti txapelketa irekia egiten da torneo hauetan, eta bertan nahi duten zale guziek hartzen dute parte.

■ Nola sartuko zenuke xakea ikastetxeetan?

Irakasgai bezala sartu beharko litzateke, baina ez derrigorrezko irakasgai bezala. Ezin da inor xakean jokatzera behartu. Xakeak, diruen balio pedagogikoengatik, harreman zuzena du hezkuntzarekin. Baina okerra litzateke derrigorrezko irakasgai bezala ezartzea. Haurrak hezteko bide ona da xakea, eta onuragarria litzateke aukerako irakasgai bezala egotea. Zenbait ikastetxetan eskolaz kanpoko jardura bezala dago. Federazioak hitzarmena sinatu du Iruñeko Udalarekin, zeinaren bitartez Udalak egitura eta dirua jartzen duen eta Federazioak xakea irakasteko teknikari kualifikatuak. Nahi duten ikastetxeak sar daitezke hitzarmen horretan, eta gu haiengana goaz. 8 eta 14 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago programa. Eskara handituz doa, gurasoak ulertzen ari direlako xakea oso onuragarria dela haurrendako, bestelako kirol jarduerak gutietsi gabe, noski. Xakea kirol jardura da, eta ikasketekin zerikusi handia du.



Paz de Zigandako haurrak xakean ari dira, baina horrek ez du erran nahi geldirik eta isilik egon behar dutenik. Mahai batetik bestera ibiltzen dira. «Ez dakizu galtzen!», oihukatu du batek. «Pazientzia izan behar da», erran du irakasleak.

ratu zitzaidan. Nafarroarentzat eta ikastolarentzat oso garrantzitsua da Karpov ekartzea. Oraindik Nazioarteko Xake Federazioko txapelketa da. Karpov hobe da, noski, baina berak alde egin zuen federazio horretatik eta sortu zuen munduko beste txapelketa bat, gehiago ordaintzen ziotelako».

Karpovek ez du jokatu txapelketa. Atzo prentsaurrekoa eman zuen txapelketa aurkezteko. Gaur aldi bereko partidak jokatu ditu. Eta larunbatean txapelketa inauguratu du.

Xake aktiboko txapelketa

Nafarroan nazioarteko bi xake txapelketa daude: Paz de Zigandakoa eta Oberenak

antolatzen duen Iruñea Hiria. Paz de Zigandakoan banakako xake aktiboan jokaten dute. Hau da, jokalaria bakoitzak 25 minutu ditu bere jokaldiak egiteko. Hortaz, partidak gehienez 50 minutu iraunen du. Oberenako txapelketan, berriz, xake olimpikoa jokaten dute eta partida sei ordukoa izan daiteke. «Gure txapelketa biziagoa da, ikusgarriagoa», erran du Alvaro.

Alvaro dioenez, hogeit bat maisu etorri ohi dira txapelketara, maisu handiak eta nazioarteko maisuak. Maisu handiak nazioarteko maisuen gainetik daude. Nazioarteko maisu izateko hiru arau bete behar dira nazioarteko maisuen artean. Konparazio batera, hiru maisuen kontrako

partidetan 2,5 puntu lortzea. Eta maisu handia izateko gauza bera lortu behar da baina maisu handien kontra.

Txapelketara maisuak ekartzea ez da zaila. Profesionalak dira, eta xake aldizkarietan ikusten dute non eta noiz egiten diren torneak. «Sari onak daude», dio Alvaro. «Irabazleak 200.000 pezeta eramanez dituzte. Normalean maisu horiek handiak eta hemendik ibiltzen dira Europar barrena, torneoz torneo, Bartzelonan, Madrilan, Bordelen eta Iruñean».

«Eta jokatu eta gero piezak bere lekuetan jarri», erregutu die Alvaro sei urteko maisu handiei.

→ Asier Azpilikueta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

1969ko 'Udaberriaren lore-yokuak' Iruñean


Egunotan 31 urte betetzen dira Euskalerrriaren Lagunen Elkargoak udaberriko lehenbiziko Lore-Jokoak Iruñean ospatu zituenetik, eta zer hoberik baizik eta literatur lehiaketa baten bitartez...



Bedatse aro berrian sartuak gara honezkero, nahiz geroago aldatzenago ari den eguraldiak horrela denik eskuarki ez frogatu, hots, negu apalean hotz zimel samurra baizik ez baitigu ekarri eta udaberriko lehenengo egunetan txokolate gal-datan hartzeko azaroko arratsalde luzeetan baino irriki goriago aisa sentitzen dugulako. Gaurko udaberria, ordea, lehenagoetak baino hagitzez ere desberdinago ez ote da, segurki ere, eta festa-urrina hurbil-hurbil somatzen hasten den honetan, gorputz aktuen berpiztea bide dakarkigu urtaro itxaropentsu honek, betiere lili-hautsari alergiarik izan ezean. Onartu behar da, gainera, garizumaren eremua geroz eta berdatuagoa dela, urtez urte oasiak hareategi puska berria irentsiko bailuan: ihauteriak ausarki gainditzen du hausterre-eguna bi eta hiru astetan ere, eta ostiralak inoiz baino desiragarriago gertatzen hasi dira, eta ez uretako arraina jaten delako hain zuzen ere. Honen harian, jada ez da bazko-zaharrari iguriki behar festan hasteko, eta martxoaren 17a egun hauta bilakatu zaigu azken boladan berebiziko hordikeria plazara jalgiaztzeko —kasualki ere, kutsu zeltikoaz moztortuagatik, oinarri katolikoko festa ere badena—.

Udaberriaren iritsiera ospatzeko aitzakiaz ere, orain dela 31 urte Euskalerrriaren Adiskideak Elkartasunak literatur ospakizun berezia antolatu zuen festa giroan. Pro-bintzietako RSVAP-Euskalerrriaren Lagunen Elkartearen antzerka, Iruñean ere EAJkide biren eskutik eratu zen Iruñean *Sociedad de Amigos del País* elkargoa 1960an, frankismoaren lakio hertsian,

euskal kulturari halako zilegitasun publikoa berriz ere emateko asmoz. Euskalerrriaren Lagunen Elkarteak aitzina eraman zituen ekimenen artean euskararen defentsari, sustenguari, bultzatzeari eta normalizazioari zegozkienak zeuden gutxiz gehieneko tokian. Elkarte honetatik abiarazi ziren, neurri handi batean behinik behin, Nafarroako Bertsolari Txapelketa berriak, Iruñeko lehenbiziko ikastolak, bai eta helduen euskara irakaskuntza. Horrekin guztiarekin lotuta, euskal literaturaren arloan egin mezenasgo lana azpimarratu behar da, eta horren barruan ere



ulertu beharko da 1969.eko martxoan eginiko Lore-jokoak.

Ohi bezala, lore-joko hauen funtsezko arrazoiak literatur lehiaketa izan zen, erdaraz zein euskaraz. Ez zen dirusaririk banatu, eta egiazko loreak izan ziren irabazleek jaso zuten sari bakarra, alabaina lan interesgarriak izan ziren aurkeztutakoak. Sari bakoitzari izen ezberdina ezarri zitzaion, hizkuntza bakoitzetara nabarmendu idazle batena hain zuzen ere. Hortaz, bederatzi izan ziren banaturiko sari guztiak: lau euskal lanentzako, beste hiru gaztelaraz idatzitakoentzako, eta bana katalanez zein galizieraz idatzitakoentzako.


Sari banaketa martxoaren 21ean berean izan zen. Nafarroako Museoan. Bertan Azkoitiko, Zangozako zein Tuterako Herriaren Lagunen Elkartearen ordezkariak bazen, hala nola Kataluniako zein Galiziako Etxeenak. Galizieraz idatzirik lanaren egileak Xixe Maria Pérez Parall izan zen, eta jaso zuen sariak *Alvaro Cunqueiro Lorea* zuen izena. Katalanezko lanaren egilea, berriz, Antón Sala Corrado izan zen, eta bere saria *Salvador Spriu Lorea* izan zen. Gaztelarazko lanentzako zeuden sarietatik Kanarietako Cipriano Acosta Navarrok bi irabazi zituen, *Miguel de Dicastillo Lorea* eta *Hermilio de Oloriz Lorea*, eta geratzen zen *Alberto Pelárea Lorea* saria Reusko Bernardino

Grañak eskuratu zuen.

Aipa dezagun jarraian euskarazko lau sarien berri. *Etxahun Lorea* Aramaioko Frantzisko Uribarrenek irabazi zuen, *Zorion bila* lanarengatik, eta *Vene-gas eta Figeroa Lorea* Azpeitiko Manuel Elias Odriozolak eskuratu zuen, *Egilearen egarri* lanarengatik. Beste bi loreak, aldiz, bi egile nafarrek erdietsi zituzten, bata arras ezaguna egun, bestea ez horrenbeste. *Etxepare Lorea* Goizuetako semea den Xabier Gartzia Tomasena lortu zuen *Egitan* olerkiarekin: «Mendi gainean elurra / Gizon tartean gezurra / Ezur / Gezur / Lur / Uts / Nekea / Zigorra / Nigarra / Egia / Baina barnean / Eguna». *Jose Agerre Lorea*, ordea, 22 urteko Patxi Zabaleta gazteak irabazi zuen *Askatasuna* poesiarekin: «Leitza zuloetan / Lamiak izkutu / Sorginak aspaldian / Ez dira agertu / Beren begiratu ederra / Eta orraza / Ta kalpar ori luzea / Nun dira? / Askatasunak iritsi omen ditu!».

etorri ahalean

Patziku Perurena



Gaitz publikoa edo artistikoa?

Mundua sobran dagoen jendez josia dago. Inor ez da ohartzen, baina, edozein tokitara begiratu, eta publikoa deitzen deneko hori, jendaje horretzek osatzen du. Eta listoren batek usteko du, agian, publikoa deneko jende sobran-te hori entretenitzen duen artistak, publikoa deneko jendaje horrek ez bezalako nortasuna duela, berezko izakera trebe eta partikularra, alegia, publikoaren artekin beste inork ez bezalakoa edo. Nola entretenitzen du, orduan, artistak bere arte partikular ergelekin, sobran-te deneko jendaje hori guzia? Ez ote da izanen haren argitasun partikularra publiko txoroari oso neurri datorkiolakotz? Zein dugu hortaz, zinetan sobran dena, publiko hutsean oinarritutako gizarte eredu honetan, artista edo publikoa?

Ene lagun Perikok esaten zuen, garai batean jainkoa izan zela izpiritu, baina, gero gizon egin zela, eta atzenean gizona ere publiko bihurtu. Eta itxura denez, horretan dirau ipuinak. Ez diot batere gorrotorik izpiritu publiko horri, gogaitu egiten nau, besterik ez. Publikoak, edozein gauza ere, arrazoirik gabe sinesten ikasten baitu, eta gero tajuzko arrazoi guziak alferrik izaten, bere erosotasun txoro kutsakor horretatik ateratzeko.

Txoromasa, publikoa, nonahi eta noiznahikoa dela ere, inolako erantzukizunik gabeko abstrazio harroxa izan ohi da beti. Gizona bere bakarrean baino ezin bailiteke izan bere izaeraren eta iharduera-jabe. Jendeak, ahultzen eta zakurtzen denean baizik ez du babesten bere burua publikoan, eta halaxe bihurtzen gero, gogo biziko izpiritu bakanen etsai amorratu: izan ere, gogo biziko jendeak, bere soilean bakartzera egiten baitu, eta gogo ahul eta zurikoak, jende oldearen zurrunbiloan bere burua babestera.

Ez da horren harritzeko, kirolak, politikak, arteak, musikak... publikoaren arimoa bilatzea, harrigarriena kritikoak, pentsalariak, bere arrakasta publikoan oinarritzea da. Publikoa oinarri duen Errepublik Unibertsal berriko paradoxarik parregarriena benetan!

Publikoa ez da sekula bere buruaz fio. Aldian aldiko boladak darama arrastan. Tuntu oneko jendeak, jakin behar du hori derrior; baina, badirudi, gusto finekoa eta sentiera zorrotzekoa balitz bezala tratatzea komeni zaiola publikoa, apropos bere neurri egindako obra magnifikoak eskainiz. Izan ere, publikoan gailendu eta ospea bereganatu duenak, aitortu beharra dauka ez dela horren zozoa publikoa; nola eutsi bestela zutik, bere arrakasta, fama edo dena delakoa-ri.

Ez al da, ordea, haurkeria, esate bateko, Van Gogh edo Beethoven jaunei beren garaian arrakasta eta famaren formulak huts egin zela esatea. Ezin ote zuen akaso Van Gogh batek kromorik pinta, edo Beethovenek txaloak jaso-tzeko eulimusiak egin? Ez ote zuten ba nahiko, arrakastarik ez bada ere, gutxienez, patxadako bizimodu erosorik?

Nola ez zuten ba nahiko? Baina bazen oraindik nahiago zuten zerbait, arrakasta eragelari edo merkatu ustelari atsegin ematekin haratago eragiten ziena: ezin zutela beren sortzeko grina bizia inora ere saihestu, eta horretzek eraman zituen inork ez bezalako gauza ederrak eta bakarrak egitera. Harrapa itzazu gaur!

Bai, publikoaren, arrakastaren, eta enparauen ipuin honetan, kondizio bakarra da nahitaezkoa: boladan dagoen erdipurdikerian ipurtzuloaraino sartzea. Txoromasa baino ez dena, hagitx izpiritu argi eta finekotzat jotzea, alegia. Gainerako guzia: apainkeria hutsa!

Ziria

• Motxorrosolo •

Inoiz

KONPONBIDEA EZ ZEN BEREZ ETORRI. URTEETAKO JOERAK ez dira erraz aldatzen. Alta, abiapuntuaren marra gero eta urrutiago, batzuen kontraesanak agerian nonahi, giro-ri lorpen-urrina zerion. Egun, oldartu dira, erasoaren tamaina alimalezkoa izan daiteke. Gizartea gero eta urrutiago dago pausatuta diren molde zaharkitu horietatik. Inoiz ezer ikasiko dugulakoan.

Jose Luis Mendoza  Euskara Kultur Elkargoko lehendakaria

«Euskaldunen Arartekoa sortu nahi dugu»

Duela urtebete jendurrean agertu zituen bere asmoak Euskara Kultur Elkargo sortu berriak: «Euskaldun sentitzen den pertsona ororen bilgune izan, eta, aniztasunean, euskara eta euskal kulturaren garapenaren alde lan egitea». Elkarteko lehendakari Jose Luis Mendozak azken hamabi hilabeteotako lanaren eta etorkizunerako asmoen berri eman digu.



• KRISTINA BERIAIN

soslaia

CAMPIONEK, ITURRALDE SUITEK eta beste hainbestek sortu Nafarroako Euskara Elkartearen ondorengotzat jo daiteke Mendoza buru duen elkargoa. Sabino Arana Fundazioarekin lankidetzat hitzarmena sinatu du, eta, aurtan, Euskaldunen Arartekoa sortzea da bere asmo nagusia.

■ **Duela urtebete aurkeztu zuen Euskara Kultur Elkargoak bere burua jendurrean; zein izan da hilabeteotan egindako lana, eta zernolako balantzea egiten duzue?**

Urtebete besterik igaro ez arren, gauza asko gertatu dira denbora tarte horretan. Gure Euskal Herri honetan politikak dena baldintzatzen du, eta hori gertatu da urte honetan. Garai hartan, elkarteak aurkeztu genuenean, oso baldintza onetan ginen gure lana egiteko, eta, orain, berriaz, ETaren su-etena bertan behera geratu ondoren, politika berriro nagusitu da erabat. Egoera polarizatuta dago. Ondorioz, kulturaren eta kultura arloko esparru guztietan ere izugarriko beherrakada nabaritu da. Egoera normal batean errazagoa da jendeari erratea kulturaren aldeko apustua egiteko, baina iskanbilak sortzen direnean, gizartearen nabaritzen denenean dena kutsatuta dagoela, zaila da. Nire ustez, orain inoiz baino mespretxu eta mesfidantza gehiago dago euskararen inguruan, eta, dena, euskara,

Cancar herrian jaioa da Euskara Kultur Elkargoko lehendakari Jose Luis Mendoza, baina bi urte eta erdi besterik ez zituenean Iruñera aldatu zen familiarekin, eta han jarraitzen du.

Beste hainbat lekutan egona da tartean; Nikaraguan, esaterako. Han hainbat urtez egon ondoren, Nafarroako hiriburura itzultzea erabaki zuen Mendozak.

Irakaskuntzaren munduan egiten du lan, Burlatako Askatasuna Institutuan. Nafarroako Gobernuak Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusian ere aritu zen hainbat urtez.

indarkeria, kultura, nahastu egiten da.

■ **Egoera horrek guztiak zer eragin izan du zuen lanean?**

Hasieran pentsatutako baino urrats txikiagoak egin ditugu, bai bazkide kopurua handitzeko, bai finantzabideari dagokionez ere. Hala ere, egin ditugu hainbat gauza. Sortzen-ekin haurren matrikulazio kanpainen parte hartu genuen, adibidez, eta, orain, Sabino Arana Kultur Elkar- goarekin Jose Luis Nievaren *La idea euskara de Navarra* liburua plazaratu berri dugu. Hasi gara, halaber, aurtengo asmoak zehazten.

■ **Eta zeintzuk dira asmo horiek?**

Gure egitasmo nagusia da euskararen edo euskaldunen Arartekoa sortzea Nafarroan. Tamalez, erakunde pribatu gisa; nik uste dut babes horrek erakunde ofizialen esku egon beharko lukeela, baina badi-rudi ez daudela horretarako prest. Arartekoaren zeregina litzateke euskaldunen eskubideak aldarrikatzea eta defendatzea, modu politiko eta zibilizatu baten bidez, baina irmo, eta ez soilik erakundeen aurrean, baizik eta bestelako esparruetan ere, saltokietan, aisialdirako zerbitzuetan, eta abar. Euskaldunen eskubideak defendatu ez ezik, erdaldunen- gan ere kontzientzia sortu nahi dugu, eskubide horiek zeintzuk diren jakin dezaten. Bai eta euskaldunek ere, askotan euskaldunok ere ez baitakigu gure eskubideak zein diren.

■ **Euskalgintzaren arloan hainbat talde ari da lanean Nafarroan; zein da talde horien artean zuek bete nahi duzuen lekua?**

Egia da gizarte dinamikoak gure alde horretatik. Gure helburua da batez ere erakunde publikoek egiten ez duten

lana egitea. Horrek esan nahi du gu saiatuko garela edozein esparrutan lan egiten, eta beste taldeekin ere harremana izaten saiatuko garela, arlo publikoan erakunde ofizialen aldetik egiten ez diren ahaleginak eskatzeko, bultzatzeko eta presionatzeko. Hor sartuko litzateke Arartekoa sortzeko egitasmoa.

■ **Zuen ibilbidea hasi zenetik harreman estua izan duzue Sabino Arana Kultur Elkargoarekin.**

Euskara Kultur Elkargoa sortu genuenean argi genuen ez ginela lehenengoak. Sabino Arana Elkargoaren eredu hor

«Egia da oraingo egoera latza dela, haustura arriskua dagoela, baina gure gizartea bizia da, eta uste dut euskal munduan eta gizarte osoan ahaleginak egingen direla arrisku hori gainditzeko»

genuen, oso elkarte sendoa. Halako erakunde batek bilgune izateko duen gaitasunean erakusten du bere balioa, eta Sabino Aranak gaitasun hori badu. Haiekin lankidetzat hitzarmena sinatzea lortu dugu, eta lankidetzat horren lehen emaitza Jose Luis Nievaren liburuaren argitalpena izan da. Konfiantza erakutsi digute, eta hori eskertzekoa da. Euskal Fundazioarekin ere harre-

manetan gaude. Uste dut bide hori dela, indarrak batzea.

■ **Arturo Campion, Juan Iturralde Suitek eta beste batzuk sortu Nafarroako Euskara Elkarteak da zuen erreferentzia nagusia. Elkarte horren euskararen aldeko asmo eta helburuak berreskuratu eta gaurkotu nahi izan dituzuela azpimarratu duzue sarritan. Zein neurritan da posible hori?**

Historia ez da inoiz amaitzen, eta garai hartako porrote-tatik ondorio onak atera daitezkeela uste dut. Egia da Euskara Elkartek porrot izugarria izan zuela, baina agian oraingoa haien ideiak plazaratzeko garai hobea da. Berriro indarrean jartzeko garaia da, agian. Uste dut, lehenik eta behin, herriar bezala

egin behar dugula lan euskararen alde.

■ **Etorkizunari dagokionez baikor zara?**

Beni, egia da oraingo egoera latza dela, haustura arriskua dagoela; baina gure gizartea bizia da eta uste dut euskal munduan eta gizarte osoan ahaleginak egingen direla arrisku hori gainditzeko.

→ Eudene Elizondo



Nafar Kronika

Pello Goñi

Antzerkia

Bizitza antzerki da. Zalantzarik gabe. Lehengo astelehenean Antzerkiaren Munduko Eguna ospatu zen, eta horren karietara Michel Tremblay autoreak idatzitako testu tiki bat irakurri zen Munduaren mutur batetik bestera: salbazioa ez da globalizazio berdintzailetik etorriko, herri ttikietan bidegabekeriaren aurka altxatzen diren ahots jatorretatik baizik. Ez dago gaizki, baina ikusi duguna ikusita nik esanen nuke salbazioa espainiar zinematik etorriko zaigula. Astelehenean bertan, hain zuzen ere, John Malkovich-en moxorroa aurpegi aurretik kendu eta Almodovar bilakatu ginen denok. Ezkerra, eskuina eta Zentroman-en zentroa Almodovarren jarraitzaile amorratu bihurtu dira zezen azalean. Hain da espainarra... Hura zinea egiten hasi arte, pelikula zaharkituak besterik ez zen ekoizten Iberiar Penintsulan, eta Pedrok karriketan gertatzen zena kontatzeari ekin zion. Antonio Banderasen hitzak dira horiek. Baina, nire ustez, Almodovarrek ez du kalean gertatzen dena kontatzen, baizik eta kalean gertatzen denaren alderdi batzuk, aunitzetan marjinal samarrak direnak, alegia, gaur egungo Espainia eskuindarrak gaitzesten dituenak. Egia da baduela estetika bat arrunt espainiarizat jotzen ahal dena, baina Almodovarren istorioak sexuz eta izatezko bikotez eta hirukotez beteta daude. Eta Almodovarzale bihurtu den jende oro horren gehiengo eztabaidezinak. Oscarren beroaldia pasa eta gero, izatezko bikoteen aurka bozkatuko du udal-letan, diputazionetan, batzordeetan eta foro guztietan, «behar ez bezalako» sexu harreman guztiak gaitzetsiko, sex-shopak galaraziko... Hau da hau komeria.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- ▶ **Aitzoain:** Gaur, 21:00etan, Urtz taldeak kontzertua emanen du Artsaian.
- ▶ **Iholdi:** Bihar, larunbatarekin, Su Ta Gar kiroldegian izanen da.
- ▶ **Etzarri-Aranatz:** Bihar, 20:00etan, Musika Eskolak eta Dantza taldeak txistu, gaita eta gitarra kontzertua eta dantzaldia eskainiko dute kultur etxean.

- ▶ **Bera:** Bihar, 22:00etan, Bide Ertzean taldeak pop musika eskainiko du, kultur etxean.

BERTSOLARIAK

- ▶ **Bera:** Igandean, 16:30etan, Bertsolari Txapelketako bigarren finalerdia hasiko da kultur etxean, eta bertan sei bertsolari ariko dira: Inigo Olaetxea, Juan Mari Lopez, Estitxu Fernandez, Manolo Arozena, Xabier Terreros eta Joxe Juan Zubieta Etxabe.

HITZALDIAK

- ▶ **Bera:** Gaur, Paraguaiko adin ttikikoen kartzela bateko argazkiak biltzen dituen *El Embudo* erakusketaren azken egunarekin batera, Gure Txokoan hitzaldia emanen dute Salhaketako Manolo Ledesma eta Sodepazeko Pablo Lorentek, *Adin ttikikoen kartzela zigorak Espainian gaiaren inguruan*.
- ▶ **Iruñea:** Asteazkenean, 20:00etan, Joxemiel Bidarrek *Gerraren etena Nafarroa ko euskal kulturaren izanen du hizketagai* Zaldiko Maldikon.
- ▶ **Mutilagoiti:** Ostegunean, 20:00etan, Koro Cantabranak argazkilariak *Imágenes de otras culturas* hitzaldia emanen du diaposi-

tiben laguntzaz. Kultur etxeko auditoriumean izanen da.

ZINEMA

- ▶ **Iruñea:** Gaur, Joseba Salegiren *Ione, igo zerura* filma emanen dute, euskaraz. Aurretik, Begoña Vicarioren *Haragia* film laburra pantailaratuko dute. Emanaldia 20:00etan izanen da, Golem zinematokietan.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Atarrabia:** Txemi Lou eta Ramon Satrustegiren Ku-

ba: milurteko bukaera argazki erakusketa ikus daiteke kultur etxean, apirilaren 7 arte. Lanegunetan, 17:00etatik 21:00etara.

- ▶ **Zizur Nagusia:** Natxo Zenborainen erakusketa dago ikusgai kultur etxean, apirilaren 16 arte. Lanegunetan, 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

BESTELAKOAK

- ▶ **Iruñea:** Bihar, larunbatarekin Arkakuso onen azoka ttikia egingen dute, goizeko

hamarretatik aurrera, San Jose plazan. Antigoaleko eta bigarren eskuko gauzak saldu edo trukatu ahal dira.

- ▶ **Iruñea:** Gaur da Gazteriaren Etxeko ikastaroetan eta mintegietan izena emateko azken eguna: *aerobic*, dantza latinoak, dantzak, yoga, sendabelarrrak eta osabide naturalak, marrazketa eta margoketa, kutxagintza, gazte kontsumitzaileak eta gorputza lantzea eta psikomotritizitatea, bateria, erlaxatze-ko masajea eta ipuin lantegia.

JOXE LACALLE



Plisti-plasta, plisti plas

Ustezko idortea akitu da. Ez omen zuen euririk egiten eta lurra ura behar zuen. Eta horra hor ur zaparrada. Irudiko zakurrak ateri genuen unetxo bat profitatu zuen Gaztelu plazako kioskoaren iturrian sartzeko. Alde urdineko zaindaria kotxei begira zeuden eta inguruko udaltzain guztiak kafea hartzen Txokon. Inork ez zion erreparatu zakurrari, ezta jabe despistatuak ere. Eta han zegoen goxo-goxo, harik eta, urrunean, trumoi baten hotsa entzun zuen arte. «Euria ari badu, ez du merezi uretan egotea», pentsatuko zuen. Iturritik ateratzen ari zelarrik, jabe despistatuak, gertatzen zenaz jabetuta, errieta egin zion. Zakurrak, burumakur, ez zion jabeari abisua eman nahi izan: «Laster, biok izanen gara plisti plas batean».